



1/2007 ZUZENTARAU OROKORRA

GAIA: Beren asistentzia sanitarioa Osasun Sailaren aldetik segurtatua daukaten herritarren mantenu, ostatu eta garraiobide ez-sanitarioen bidezko lekualdatze gastuetarako laguntzen erregulazioa.

SARRERA

Osasun Sailak, dohainik, mantenu/ostatu eta garraiobide ez-sanitarioen bidezko lekualdatzeetatik dieta gisa laguntza ekonomiko batzuek eman izan dizkie, euren bizilekuetatik urrun dauden zentroetan asistentzia sanitarioa jasotzeagatik laguntza eskatzen zuten herritarrei.

Aipatutako laguntzak emateko irizpideak Osasun Finantziario eta Kontratazioko zuzendariaren 4/2004 zuzentarau orokorrean agertzen ziren. Zuzentarau horrek, beren asistentzia sanitarioa Osasun Sailaren aldetik segurtatua daukaten herritarrentzat, mantenu, ostatu eta garraiobide ez-sanitarioen bidezko lekualdatzeetatik eratorritako gastuen laguntzak arautzen ditu.

Hala ere, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu erkideen zerrenda eta horren eguneratze-prozedura ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretua indarrean sartzeak, aipatutako zuzentarauean aldaketaren bat sartu beharra eragin du.

Hori dela eta, laguntza hauek garraiobide ez-sanitarioen bidezko lekualdatzeetatik eratorritako gastuengatik eta mantenu eta ostaturako dietetarako laguntzak gaur egungo errealitate sozio-sanitariora hobeto egokitu daitezen bermatzeko asmoz, hartu dugun esperientziak gomendatzen digu, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuak emandako eskumenak betez, ematea honako:

JARRAIBIDEAK

Lehenengoa.-

Arau orokor honen eremuan barne hartzen dira asistentzia sanitarioako eskubidea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aldetik segurtatua daukaten Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiak.

Bigarrena.-

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aldetik asistentzia sanitarioa segurtatua daukaten herritar hauek eskatu ahal izango dituzte laguntzak, mantenu/ostatu eta garraiobide ez-sanitarioen bidezko lekualdatzeetatik eratorritako gastuetarako, baldin asistentzia hori lortzeko Euskadiko Sistema Sanitariotik kanpo dauden zentro sanitarioen batera lekualdatu beharra badaukate.

Hirugarrena.-

Aseguratuari laguntza ekonomikoa emateko mekanismoa gastuen ordainketa izango da. Gastuen ordainketako espedientearen ebazpena aldekoa izan dadin, diru-laguntza eskatzen den gastu horiek justifikatzen dituen behar besteko dokumentazioa eta helburu-zentroak sinatutako dagokion asistentzia ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

Laugarrena.- Pazienteen mantenu- eta ostatu-gastuetarako laguntzak.

4.1. Laguntza emateko *baldintzak* honako hauek izango dira:

- 4.1.1. Pazienteak behar duen asistentzia-prozedura ez da eskura edo erabilgarri egongo kasuak eskatzen duen denboran edo era egokian Euskadiko Sistema Sanitarioko asistentzia-eskaintzan.
- 4.1.2. Lekualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpoko asistentzia-zentro batera izan beharko da.

4.1.3. Asistentzia sanitarioa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko edo Osasun Sailak hitzarturiko zentroren bateko fakultatiboren batek aldeztu aurretik adieraziko du, eta dagokion Lurralde Zuzendaritzak baimenduko du, Osasun sailburuordearen 2002ko uztailaren 16ko Ebazpenaren arabera, zeinean zehazten baitira Euskadiko Sistema Sanitariotik kanpoko asistentzia sanitarioa sarbidea edukitzeko irizpideak eta jarduketa-protokoloak gauzatzeko araubidea.

4.1.4. Pazientea helburu-zentro sanitarioa lekualdatzeak gaua eman beharra derrigorrez suposatuko du.

4.2. Laguntzaren *zenbatekoa* honako hau izango da:

Gehienezko globala eguneko 60 eurokoa izango da: gehienez 40 euro ostaturako eta gehienez 20 euro mantenurako.

Bosgarrena.- Laguntzaileen ostatu- eta mantenu-gastuetarako laguntzak.

5.1. Laguntza emateko *baldintzak* honako hauek izango dira:

5.1.1. Lekualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpoko asistentzia-zentro batera izan beharko da.

5.1.2. Pazientea 18 urtetik beherakoa edo ezindu legala bada, kasu guztietan estimatuko dira eskabideak. Gainera, pazientearen egoera klinikoagatik, Ikusatzailatza Medikoaren arabera, eman behar zaion tratamendua dela eta, ezinbesteko gertatzen bada laguntzaile baten presentzia, kasu horietan ere estimatu ahal izango dira eskabideak.

5.1.3. Pazientearekin batera laguntzailea lekualdatzeko, aurretiaz baimena lortu behar da bere egoitza-lekuari dagokion Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzan.

5.1.4. Betiere, pazienteak derrigorrezko izango du gaua kanpoan egitea.

5.2. Laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

- 5.2.1. Pazientea zentroan ingresatzen badute: gehienezko globala eguneko 60 euro izango da, gehienez 40 euro ostaturako eta gehienez 20 mantenurako.
- 5.2.2. Pazientea zentroan ingresatzen ez badute: gehienez eguneko 20 euro mantenurako.

Seigarrena.- Mantenu- eta ostatu-gastuetarako laguntzen gehienezko zenbatekoa.

Ostatu- eta mantenu-gastuetarako laguntzen gehienezko zenbatekoa, baimenaren xede den asistentzia sanitarioko prozesuari dagokionez, pazienteari eta beronen laguntzaileari guztira dagokiena, ezingo da izan ezein kasutan 900 euro baino gehiago, etxetik kanpo gaua egin behar den hamabostaldi bakoitzeko.

Asistentzia sanitarioa denboraldi labur baina errepikakorretan ematen denean, hauek metatuz joango dira gaua etxetik kanpo igaro behar izandako hamabostaldiak zenbatu ahal izateko.

Zazpigarrena.- Pazienteak eta, hala balegokio, bere laguntzaileak garraiobide ez-sanitarioetan egindako lekualdatze-gastuetarako laguntzak.

7.1. Laguntza emateko baldintzak honako hauek izango dira:

- 7.1.1. Lekualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpoko asistentzia-zentro batera izan beharko da.
- 7.1.2. Pazienteak 4.1.1., 4.1.2. eta 4.1.3. ataletan zehazten diren baldintzak bete beharko ditu.
- 7.1.3. Laguntzaileak 5.1.1., 5.1.2. eta 5.1.3. ataletan zehazten diren baldintzak bete beharko ditu.

7.2. Laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

Pazienteak/laguntzaileak erabili duen garraio publiko arruntaren tarifa baliokidea (trena -2. klasea edo ohatzea- edo lineako autobusa). Lekualdatzea hegazkinez egin beharra gertatzen den aparteko kasuetan, hegaldi erregular batean klase turistari dagokion tarifa.

Pazienteak/laguntzaileak bere ibilgailu propioa erabiltzen baldin badu, garraio publiko arruntaren tarifaren arabera ordainduko zaio.

Zortzigarrena.- Denboraldi baterako Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuetara joaten diren eta bitarte horretan beren behin-behineko egoitzatik Erkidego horretako zentro sanitarioa lekualdatzeko garraiobide ez-sanitarioa behar izaten jarraitzen dutenen kasu berezia (adib.: dialisiaren menpe dauden pazienteak).

8.1. Pazientea denboraldi baterako lekualdatu den autonomia-erkidegoa da, bere esparruan garraio sanitarioaren erabilera baimentzeko erabiltzen dituen irizpideak ezarritik, zehazki arrazoi medikoak direla-eta tratamendu horiek behar dituzten erabiltzaileei prestazio hori errazteko ardura hartzen duena.

8.2. Baldin Autonomia Erkidego horretako agintari sanitarioek pazientea barne hartzen ez badute garraio sanitario kolektiboko beren programan (adib. behin-behineko egoitza hori oso aparte geratzen delako garraio sanitario kolektiboak egiten duen zirkuitutik) eta, ondorioz, zentro sanitarioa joateko bere ibilgailu propioa edo taxia hartu beharra duenean, bere erkidegora itzulitakoan gastu horiei dagokien ordainketa eskatzen duenean, erantzuna baiezkota izan daiteke; betiere eskatzaileak lekualdatuta egon den autonomia-erkidegoko dokumentazioa aurkezten badu eta dokumentazio horretan garraio sanitario kolektiboa ezin izan zaiola eskaini adierazten bada.

8.3. Tarifa hauek ezarriko dira:

8.3.1. Lekualdatzea bere ibilgailu propioan egiten badu zein taxian egiten badu, kilometroko 0.30 euro.

8.3.2. Nolanahi ere, hileko gehieneko zenbatekoak ezingo du 900 euroko kopurua gainditu.

Bederatzigarrena.- Emailea bizirik dagoenean organo-emateen kasu berezia.

Gure Erkidegoan organoak ematearen ekimenaren alde egitearen egokitasuna gogoan hartuz eta laguntza-mota horiek emateko edo ez emateko bizirik dagoen emailearen organo-transplanteetan, egoera horietan aldi berean gertatzen diren salbuespenezko baldintzak aintzat hartuz, honako irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- 9.1. Emailea pazientetzat har dadila, aldez aurretik egiten diren azterketen fasean zein transplantea bera egiten den fasean.
- 9.2. Emailea hartzaillearengandik ezberdina den Lurralde batekoa denean, emailearen jatorrizko Lurralde horrek bere ostatu-, mantenu- eta lekualdatze-gastuak ordaindu beharko dituela.
- 9.3. Euskal Autonomia Erkidegoa ez den Autonomia Erkidego batetik datorren emailearen kasuan, jatorrizko Erkidego horrek ez baditu pazientearen ostatu-, mantenu- eta lekualdatze-gastuak ordaintzen, hartzaillea den Lurralde Historikoak aipatutako gastuak bere gain hartuko dituela.

Hamargarrena.- Iraunaldia eta indargabetzea.

- 10.1. Dokumentu honen xede diren jarraibideak ezarri ahal izango zaizkie eskabide-prozedura berri guztiei: zentro pribatuetarako aurretiazko baimen-eskabideei, zentro publikoetarako asistentzia-aginduei eta jarraibide hauen dataren ondoren aurkezten diren gastuen ordainketei (gastuen ordainketaren kasuan berdin dio gastuak aipatutako data baino lehen egin badira ere) eta, azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuarekin bat etorriz, zeinaren arabera ezartzen baita Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, eta Osasun sailburuordearen 2002ko uztailaren 16ko Ebazpenari jarraiki, zeinean zehazten baitira Euskadiko Sistema Sanitariotik kanpoko asistentzia sanitariora sarbidea edukitzeko irizpideak eta jarduketa-protokoloak gauzatzeko araubidea.



- 10.2. Indargabetuak eta deuseztatuak geratzen dira maila berdin edo baxuagoko xedapen eta jarduketa guztiak, baldin honako Zuzentarau Orokor honetan aurreikusten diren jarraibideei trabak jartzen badizkiote.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 25ean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Josu I. Garay Ibañez de Elejalde

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

OSASUN FINANTZIAZIO-ETA KONTRATAZIOKO ZUZENDARIA